

Salbuespen egoeran langile sektore kolpatuenak babestu eta defentsa politikoa antolatu

GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA :: 06/04/2020

Salbuespen egoeran langile sektore kolpatuenak babesteko eta "defentsa politikoa" antolatzeko lan ildoak abiatu du GKS

GKS martxoaren 20an jarri zuen martxan 'Burgesiaren ofentsiba gelditu!' salaketa kanpaina politikoa. Lanketari jarraipena emanez, bizi dugun krisialdian langileriaren barruan kolpatuenak izaten ari diren sektoreen eskubideak eta askatasun politikoa babesteko baliabideak antolatzeari ekingo dio orain. Zehazki hiru alorretan prestatuko ditu defentsarako baliabideak: etxebizitza, polizia jazarpena eta lan-arloa.

Alarma egoera hasi zenetik, "ezkutuko albuespen egoera" salatu du Gazte Koordinadora Sozialistak, *Burgesiaren ofentsiba gelditu!* salaketa kanpaina politikoaren bidez. Krisialdi honek langileriaren izango dituen eragin zuzenak seinatutaz gain, lau aldarrikapen zehatz aurkeztu zituen martxoaren 20an.

Orain, ordea, "**optika proletario batetik politika egiteko unea**" heldu dela adierazi dute GKS kideek, "proletalgoaren antolakuntza politikoaren beharrari" azpimarra jarritz, eta "sozialdemokraziaren posizio politikoei eta jarduteko moduei" hautsi asmoz.

Azken asteetan ezarri den testuinguruak, "klase ofentsiba gordina eta **proletarizazio prozesuaren larriagotze nabarmena**" ekarriko dituela dio GKS, eta horri aurre egiteko, "**langile antolakuntzaren bidez defentsa politikoa**" gauzatzeko ordua dela azaldu du.

DEFENTSARAKO BALIABIDEAK

Gazte Koordinadora Sozialistak iragarri du momentuz hiru alorretan abiatuko dituela defentsa politikorako baliabideak: **etxebizitzaren** esparruan, **polizia jazarpenaren** alorrean, eta "ahal duten heinean", **lan-arloan**. "Prozesu burokratiko saihesteko eta independentzia politikoz jarduteko" bitartekoak izatea da asmoa.

Lanketa horrek, gainera, honako helburuak barne-bilduko ditu momentuz: hiru arlo horietan ditugun **eskubideen jabe** egitea, eta sor daitezkeen **gatazkei aurre hartzeko** eta balizko prozesu administratiboetara jotzeko baliabideak erraztea.

Lan ildoak aurrera eramateko, "eremu eta maila desberdinetan lan egiten duten eragile ugaritako militanteen esfortzuaz" dihardutela adierazi dute. Ez dute baztertu aurrerago lan lerro gehiago jorratzea; hala nola, genero indarkeria kasuetan emakumeen babeserako bitartekoak antolatzea.

Horretarako harremanetarako bideak zein izango diren datoen egunetan jakinaraziko dutela adierazi dute. Hain zuzen ere, "eskualdez eskualde" azaldu asmo dituzte problematikari aurre egiteko martxan jarriko dituzten bitartekoak. Beraz, "izaera lokala"

izango dute kanal horiek, horretarako eskura dituzten euskarrien bidez. Besteak beste, harremanetarako helbidea jarriko dute eskuragarri kasu pertsonalak helarazteko.

GKSk argi utzi nahi izan du, azkenik, babeserako eta defentsarako lanketa hau "koiunturaren aurrean politika egiteko bitartekoa" dela, eta koiuntura garatu ahala jarduna egokitzen joango dela, etengabe.

Salbuespen egoeran langile sektore kolpatuenak babesteko eta "defentsa politikoa" antolatzeke lan ildoak abiatu du GKSk

<https://gedar.eus/aktualitatea/mugimendusozialista/salbuespen-egoeran-langile-sektore-kolpatuenak-babesteko-eta-defentsa-politiko-antolatzeke-lan-ildo-abiato-du-gksk>

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/salbuespen-egoeran-langile-sektore-kolpatuenak